

Bertsogintza Euskaltzaindiaren Hiztegian



UZEIren lankidetzarekin



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

bederatziko

iz. Bederatzi puntu dituen euskal bertso mota.

bertso

iz. Euskal herri-literaturako ahapaldia, bat-batean botatzen dena edo jartzen dena.

bertso afari, bertso-afari

iz. Lagunartean egiten den afaria, bertsolarien saioekin girotua izaten dena.

bertsoak (bertso bat...) atera

1 Bertsoak jarri.

2 (*bertsoak aterako dizkizute* eta kideko esapideetan, egin dena edo egin asmo dena lotsagarria edo nabarmen geratzeko modukoa izan daitekeela adierazteko).

bertsoak (bertso bat...) bota

Jendaurrean bertsoak bat-batean osatu eta kantatu.

bertsoak (bertso bat...) eman

Bertsoak jarri.

bertsoak (bertso bat...) ipini

Bertsoak jarri.

bertsoak (bertso bat...) jarri

Bat-batekoak ez diren bertso berriak idatziz eman.

bertsoak (bertso bat...) paratu

Bertsoak jarri.

bertso berri

iz. Idatziz ezagutaraziriko bertsoa.

bertso jarri

iz. Bertso berria, idatziz ezagutarazia.

bertso jartzaile, bertso-jartzaile

iz. Euskal herri-literaturako bertsoak idazten dituen pertsona.

bertso kantari, bertso-kantari

adb. Bertsoak kantatuz.

bertso lerro, bertso-lerro

iz. Bertsoa.

bertso saio, bertso-saio

iz. Bat-bateko bertsoak botatzen diren saioa.

bertso saltzaile, bertso-saltzaile

iz. Bertsopaperak saltzen dituen pertsona.

bertsotan

1 adb. Bertsoak botaz.

2 adb. Bertso bidez, hitz neurtuz.

bertsoz

adb. Bertsotan.

bertsoaldi

1 iz. Bertsolariak botatzen duen bertso sorta edo egiten duen bertso saioa.

2 iz. Bertso sorta.

bertsogile

iz. Bertsoak (olerkiak) egiten dituen pertsona. Ik. ***olerkari***; ***bertsolari***.

bertsogintza

1 iz. Bertsoak egitea.

2 iz. Bertsoak botatzea edo jartzea. Ik. ***bertsolaritza***.

bertsoka

adb. *Ipar.* eta *Naf.* Bertsotan.

bertsokera

iz. Bertsoak moldatzeko era.

bertsolari

iz./adj. Bertsoak jartzen edo, bereziki, bertsoak botatzen dituen pertsona.

bertsolaritza

iz. Euskal herri-literaturaren adarra, bertsolariari eta bertsoegintzari dagokiena.

bertsopaper

iz. Jarritako bertsoak jasotzen dituen papera.

bertsozale

adj./iz. Bertsoen zalea dena.

bertsozaletasun

iz. Bertsoetarako zaletasuna.

doinu

1 iz. Kantatua izateko gai den musika-noten segida.

errima

iz. Hoskidetasuna.

etorri

iz. Hitz egiteko edo bertsoak moldatzeko erraztasuna.

gai jartzaile, gai-jartzaile

iz. Bertso saioetan, gaiak jartzen dituen pertsona.

hamarreko

iz. Bertsogintzan, hamar lerro eta bost puntu dituen bertso mota.

hamarreko handi

iz. Bertsogintzan, lerro bakoitiak hamar silabakoak eta bikoitiak zortzikoak dituen hamarrekoa.

hamarreko nagusi

iz. Hamarreko handia.

hamarreko txiki

iz. Bertsogintzan, lerro bakoitiak zazpi silabakoak eta bikoitiak seikoak dituen hamarrekoa.

neurri

iz. Neurtitzak izan behar dituen silaba klase eta zenbatekoa.

ofizioka

adb. Bertsolaritzan, bertsolari bakoitzak gai-jartzaileak emandako rola jokatzeko duela.

oin

iz. Euskal bertsoetan, errima duen hitza, puntu bakoitzaren bukaeran doana.

poto

iz. Heg. Bertsolariak oin bera esanahi beraz bertsoaren bi puntutan errepikatzean egiten duen hutsa.

poto egin

Bertsolariak oin bera esanahi beraz bertsoaren bi puntutan errepikatu.

puntu

iz. Euskal bertsoetan, oinetik oinerako esaldia.

puntua eman

Bertso saioetan, gai-jartzaileak lehen bi bertso-lerroak kantatu bertsolariak bertsoa osa dezan.

puntua jarri

Bertso saioetan, gai-jartzaileak lehen bi bertso-lerroak kantatu bertsolariak bertsoa osa dezan.

puntuka

adb. Bertsolari bakoitzak puntu bat kantatuz, denen artean bertsoa osatzen dutela.

ziri bertso, ziri-bertso

iz. Bertso satirikoa.

zortziko

iz. Zortzi lerro eta lau puntu dituen euskal bertso mota.

zortziko handi

iz. Euskal bertso mota, 10 eta 8 silabako zortzi lerroz osatua dena eta 8 silabako lerroetan puntua duena.

zortziko nagusi

iz. Zortziko handia.

zortziko txiki

iz. Euskal bertso mota, 7 eta 6 silabako zortzi lerroz osatua dena eta 6 silabako lerroetan puntua duena.



UZEIren lankidetzarekin



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE